

ERANSKIN DOKUMENTALA

GURAPU HATTEAK, 1971-1972ko 2. liburuko 10. orrialdea
BATEK FRONTETIK BILATUTAKO ETXETIK



Ni jaro nuen... 24 orria... zenda zela. Hori... zirene; beti juki...

Endoren... zibilaren galak... nise arreta ha...

Batas, ota... konpentsazkent... trakin nahasien... urriariletik... darrako Franch... argiak eskura...

*Joxe Otaegiren oroimenez,
gerrak kendu baitzidan
bera ezagutzeko aukera*

GURASO MAITEAK. ITZULIKO EZ ZEN SOLDADU BATEK FRONTETIK BIDALITAKO GUTUNAK

*“Ez genekien gerra hain makurra izango zenik, jende guztiaren
etxera sartuko zenik, eskailerak igo, atea jo, eta barrura sartuko zela,
eta aterik jo gabe ere sartuko zela. Horrela hondatu ziren gure bizitza
txikiak”*

Joseba Sarrionaindia.¹

Ni jaio nintzenean baziren jada 24 urte Jose M^a Otaegi Olano, nire osaba, zendu zela. Hori dela-eta, nik harengatik nituen erreferentziak nahiko eskasak ziren; beti jakin izan nuen gerran hil zela, baino ez askoz ere gehiago.

Ondoren ere, gerra zibilaren gaiak nigan jakin-mina sortu zuenean, ez nion arreta handirik eskaini azken buruan bando okerrean hil zen norbaiti.

Baina, orain, frankismoko biktimei eskaintzen zaizkien omenaldiak eta konpentsazioak, judizioz kanpo hilarazitako pertsonen gorpuzkien aurkikuntzekin nahasten diren klima honetan, kasualitateak nahi izan du Joxek 1937ko urtarriletik –mobilizatu zutenetik– abuztura arte –orduan hil baitzen Santanderreko Frontean– bere gurasoei idatzi eta bidali zizkien hainbat gutun eta argazki eskuratzea.

¹ SARRIONAINDIA, Joseba. “Kolozala izango da”, Tafalla, 2003.

1936ko deialdi honetako indibiduen tipologia baserritarrarena zen. Izan ere, zazpi mobilizatuetatik sei hala ziren, eta, ondorioz, euskaldunak eta ideologia markaturik gabeak –ez daukagu jasoia gerra aurretik inongo erakundetan militatzen zutenik–. Planteatzen den hipotesi zentzuzkoena da ez zituztela armak beren borondatez hartu ezarritako ordenaren edo Errepublikaren alde gerrak gutxi iraungo zuela uste zutelako, edota jadanik anaien bat gerran zeukatelako, edota beren eskulana baserrian ezinbestekoa zelako, eta gertaeren bilakaerak, Andoainen erorketak, errekrutatze-bulegoaren deiak eta abarrek egin zutela gainerakoa.

Joxe Otaegiren joera politikoari dagokionez, adierazi behar da ez zela inongo erakunde politiko edo sindikaleko kide, 1936ko ekainean Andoaingo Langabetuen Aldeko Batzordean parte hartu bazuen ere. Batzorde horrek, Herriko Etxeko lokaletan Batzar Nagusia egin ondoren, zenbait eskaera luzatu zizkion Udalari; horien artean Lan-burtsa bat sortzea, eta burtsa horretara jo beharra patronalaren nahiz langabetuen lan-beharrak asetzeko.

Gerra piztu zenean, eta, batez ere, tropa faxistak berehala sartuko zirelakoan, Andoainen, beste hainbat herrietan bezala, biztanleriak kostalderantz ihes egin zuen, batez ere Bizkairantz... exodoa ez zen handiagoa izan ebakua-ziorako bitartekorik ez zegoelako. Hori horrela, Otaegi familiatik, seme gazteena, Lazaro, izan zen Andoain utzi eta Donostiarantz abiatu zena, 1936ko abuztuaren 16an bertan, anbulantzia batean, erizainez “mozorrotuta”. Izan ere, Belabietako enfrontamenduetan parte hartu zuenez, errepresaliak jasango zituen beldur zen. Ondoren, gudari joan zen Eusko Jaurlaritzako Gerrarako Garraioen Gernikako Konpainian.

Egoera familiar horrek, gerraren iraupenari buruzko zalantzarekin batera, Joxe Andoainen geratzea eragin zuen. Horrela, bere deialdian mobilizatu izan zen, bando “nasionalean” bazen ere.

Ondoren erakusten ditugun gutunak garai hartan 21 urte zituen gazte batenak dira; familiaren ekonomiaz eta beren bizi-iturri zen arrainaren kalesalmentako “negozioaz” kezkatutako gazte batenak; bere arrebari eta familia-rekin bizi ziren izeba² eta lehengusinei zuzendutako gutunak dira, herriminez eta oroitzapenez beteak; 30eko hamarraldiko Andoainen eta bere eguneroko bizitzaren aipamenez betetako gutunak. Gutun horietan bada zerbait deigarria, ez dagoela inolako “gudari amorrurik”: gorriez hitz egiten da, bai, baina inolako gorrotorik gabe; medioen gerra ere aipatzen da, Eibar eta Durango³ bezalako herrien erorketari buruzko albiste kontraesankorrek; eta, azkene-

² Bere izeba Florencia Olano Sasiain 1940ko apirilak 15ean hil zen Andoainen, 41 urte zituela, tuberkulosiak jota. Gaixotasun hori dela eta bere alaba Bernarda Tuberkulosiaren Aurkako Sanatorioan ingresatua izan zen.

³ Eibar eta Durangoko erorketak 1937ko apirilak 27an eta 28an gertatu ziren.

ko gutunetan, jadanik nekea eta gogaita igartzen dira, “*Ziurrenik gerra aurten bukatuko dela esaten da, egia izango balitz!*”. Baina gerrak oraindik beste bi urte iraun zituen, nahiz eta Joxerentzat 1937ko abuztuaren 15ean amaitu zen, Valdelejan, Burgosen.

Ez zen erraza izan hil zela jakitea edo berrestea, eta are gutxiago non lurperatu zuten asmatzea, nahiz eta bere ama eta arreba Valdelejaraino iritsi ziren.

Gutun hauen argitalpena, makrohistoriaren ikuspegitik, hutsala izan daiteke; ez dute kontatzen gerrari buruzko ezer, lehendik ezagutzen ez dugunik. Argitalpen honen xedea da pertsona normal batek gerra nola bizi izan zuen ezagutaraztea, lehenengo eskutik eta jatorrizko iturrietatik. Gainera, gutun hauen egilea borrokan hil izanak kutsu tragikoa ematen die; gerra honetan hil ziren ehun andoaindarretako bat da. Fusilatuak, desagertuak, frontean bando batean nahiz bestean hilak... 100 bat hildako 3900 biztanlera iristen ez zen herri batean.

Heriotza, espetxea, errepresioa, irainak, atsekabea, nekeak, deserrotzea, pobrezia... hori guztia da 1936ko uztailaren 18ko jaikialdi militarrek berekin ekarri zuena. Denbora luzean zehar, desnutriziora, ospelei, zorriei eta abarri lotutako gaixotasunak izan ziren herriaren eguneroko ogi beltza. Betirako errotuta geratu ziren beren memorian errazionamendua, estraperloa, laguntza soziala, mugimenduaren printzipioak, demokrazia organikoa, sindikalismo bertikala eta diziplina-batailoia bezalako terminoak. Termino horiek grisez tindatu zuten guztia, Errepublikarekin etorkizun hobeagorako esperantza igarri izana uste zuen gizarte hartan.

KARMELE OTAEGI NEGREDO



Joxe Otaegi, txuriz, Joakin Zubeldia Olano lehengusuarekin, Juana Bautista Sasiain, ama aldeko amonarekin eta Lazaro anaiarekin.



Jose M^a Otaegi bere lehenengo jaunartzearen egunean, 1926ko maiatzak 13an, hain zuzen ere.

OTAZUEN EGUNA
OTAZUEN EGUNA

1.ª Pampiona, 10 de Enero 1937

Queridos padres: Me alegraré si al reciba de ésta se encuentran todos bien, en caso



Joxé Otaegi, eskuinean, Lazaro eta Maria anai-areekin eta Florencia Olano izebarekin
Bernarda Jauregi lehengusua besotan duela.

Firmado: José

Si sabéis alguna noticia del hermano Lázaro mandarme enseguida."

